

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**9/2022 Foru Araua, apirilaren 27koa, 5/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 5koa, baliozkotzeko dena, premiazko neurriak onesteko, azkenaldiko ezohiko gertaerek eragindako krisiari aurre egiteko**

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko apirilaren 27an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

9/2022 Foru Araua, apirilaren 27koa, 5/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 5koa, baliozkotzeko dena, premiazko neurriak onesteko, azkenaldiko ezohiko gertaerek eragindako krisiari aurre egiteko.

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, apirilaren 5eko 5/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, premiazko neurriak onesteko, azkenaldiko ezohiko gertaerek eragindako krisiari aurre egiteko.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

**ARTIKULU BAKARRA.** Baliozkotuta geratu da apirilaren 5eko 5/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, premiazko neurriak onesteko, azkenaldiko ezohiko gertaerek eragindako krisiari aurre egiteko.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 27a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**